

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2012/05/17	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 17:00 - 17:35	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)

Iraia Sola Arregi (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)

Omer Arregi Biain (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)
Iñigo Garitano Larrañaga

Idazkaria:

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:

Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria): Arratsaldeon denoi. Poz handia ematen dit Pleno aretoan hainbeste jende ikusteak, gehienak ikasleak zarete gainera ,Arrasateren etorkizuna. Gaur garrantzi handiko gai bat ekarri diguzue etorkizun osasuntsuagoa ezinbestean jorratu beharrekoa elikadura jasagarria. Jakin badakit urte osoan gogotsu aritu zaretela gaia aztertzen eta guztiei eskertu nahi dizuet egin duzuen ahalegina.

Irrikitan nago prestatu dituzuen proposamenak entzuteko, ziur nago interesgarriak izango direla eta gure lana egiteko lagungarriak izango direla. Beraz gehiago luzatu barik hasiera emango diot Plenoari. Zuena da hitza.

1.- 2011/2012 ESKOLAKO AGENDA 21: ONDORIO, PROPOSAMEN ETA KONPROMEZUEN DOKUMENTUAREN AURKEZPENA.

ARIZMENDI IKASTOLA(GAZTELUPE): MAITE BILBAO: Arratsalde on! Gaur hemen gaudenok Arrasateko Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi Ikastolako (Gazteluondo Gunea, Arimazubi Gunea, Sta Teresa Gunea eta Gaztelupe Gunea) ikasleak gara. Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok, 2.133 ikasle, jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21 lantzen.

Eskolako Agenda 21aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasagarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

ARRASATE HERRI ESKOLA. MIKEL AZNAREZ: Duela 9 ikasturte hasi genuen proiektua eta denbora luze horretan gai hauek landu ditugu: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea, zarata eta uhin elektromagnetikoak eta aurtengoa elikadura jasagarria.

Kurtso honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa hemen zerrendatzen ditugu jarduerak:

ARIMAZUBI - LIERNI SARRAOA: Gure zentroetan elikadura jasagarriari buruz asko hitz egin dugu, bideoak ikusi ditugu, jokoak eta jolasak egin ditugu, txosten asko egin dugu, gaiarekin lotutako kontzeptuak landu ditugu,...Gelan gaia eztabaidatu dugu eta iritziak jaso ditugu. Hainbat inkesta egin dugu: janaria jasagarria ea jaten dugun ziurtatzeko, bai ikasleen artean bai familian.

INSTITUTUA. ENEKO KARRASKAL: Inkestaz gain ikastetxeetan ekintza asko egin dugu zentroko guztiei informazioa emateko: gaiaren inguruan kartelak diseinatu eta egin eta gero, paretetan jarri, jolastokietan pintxo eta zuku naturalak saldu.

Udalako Ingurumen Eskolakoekin hainbat lana egin dugu: herritarren artean galdetegiak egin ditugu, emaitzak aztertu ditugu eta arazoak konpontzeko proposamenak atera ditugu. Bestetik, Udaltik Garagartzara joan gara eta han dauden ortu ekologikoak bisitatu ditugu eta hainbat lan ere egin dugu bertan.

GAZTELUONDO-VALENTINA RAMIREZ: Herriko denda batzuk bisitatu ditugu janari jasagarria zuten ikusteko, bide batez, herritarrek elikagai ekologikoak ezagutzen dituzten edo ez galdetzeko.

Herriko azokara ere ibilaldia egin dugu eta bidean edo bertan topatu genituen pertsona nagusiei lehenengo azoka nolakoa zen galdetu genien.

Pertsona helduei ere galdetu diegu euren janari ohiturei buruz.

SANTA TERESA - HAIZEA UZARRAGA: Gure gurasoei eta kaleko jendeari erosketak non egiten dituzten galdetu diegu eta ondorio interesgarriak atera ditugu. Zorionez denok ez goaz merkataritza zentro handietara gure erosketak egiteko.

Hondakin organikoekin konposta egin dugu. Zein gauza ona ingurumenarekiko!!

GAZTELUPE - MARIA GERRIKABEITIA: Datorren urtean ikastetxean baratza izatea aztertzen ari gara eta Garagartzako ortuak bisitatu ditugu bertan egiten dena ondo ezagutzeko (produktu kimikoak ez erabiltzearen onurak ikusi ditugu eta ortua lantzeko tresnak ezagutu eta erabili ditugu).

- Janariaren jatorria eta energia kontsumoa aztertu ditugu, zenbat kilometro egin behar dituzten elikagaiak askotan eta zenbat energia gastatu behar dugun horretarako.

ARRASATE HERRI ESKOLA - MARTXEL VIKARIO: Munduan dauden familia askoren elikatzeak ohiturak aztertu ditugu, zenbat diru daukan bakoitzak elikatzeak eta zeintzuk diren elikadura osasungarrienak. Gure zentroetako makinetako produktuak aztertu ditugu eta aldi berean elikagai transgenikoak landu. Produktuek dituzten etiketak landu ditugu.

ARRASATE HERRI ESKOLA- ANDONI VALOR: Janariaren piramidea landu dugu osasun aldetik eta jasagarritasunaren aldetik (bertakoa, ekologikoa, freskoa eta sasoikoa kontzeptuak azpimarratu ditugu). Aste oso batean norberaren elikaduraren fitxa bete, gero denon artean ondorioak atera eta bukatzeko gauzarik interesgarrienak korridoreetan zintzilikatu ditugu, ekintza horretan parte hartu ez dutenek horien berri jakiteko.

Gure elikatzeak erarekin zenbat hondakin sortzen dugun ere aztertu dugu.

INSTITUTUA - IKER URIBESALGO: 'Elikadura jasangarria' gaia aztertu dugunean konturatu gara jendea prest dagoela gauzak aldatzen joateko, baina askotan ez dakiela nola hasi.

Ikasle guztiok parte hartu dugu orain aurkeztuko dizkizuegun ondorio, proposamen eta konpromisoak egiten. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien arteko batzarrean, eta amaitzeko, hemen aurkeztuko dizkizuegunak ikastetxe guztietako ordezkarien arteko batzarrean.

SANTA TERESA - PAULA BARRIONUEVO: Pleno areto honetan gauden ikasleak lehen aipatu ditudan ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak gara. Orain entzungo dituzuen proposamen eta konpromisoekin Arrasateko bizi kalitatea hobetu nahi dugu, hau da, Arrasate hobe lortzen lagundu nahi dugu.

ARRASATEKO UDALBATZARRERAKO KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK

GAZTELUONDO - ANDER GARAI: Arrasatearren elikadura ohiturak aztertzerakoan, hainbat konklusio atera ditugu: gazteok litxarrerria ugari jaten dugu, baina orokorrean herritarrok nahiko dieta osasuntsua betetzen dugu. Hala ere, elikagai jasangarriaren aldeko ohitura gutxi dago. Gure aitajaun-amandreek ohitura osasungarriagoak eta jasangarriagoak zeuzkaten. Oinez joaten ziren erosketak egitera, hemengo eta sasoiko produktuak kontsumitzen zituzten, ontziratu gabe, hondarrak aprobetxatzen zituzten eta zakarrontzira oso gutxi botatzen zuten.

ARIMAZUBI- IRATI LASA: Dauzkagun elikatzeko ohiturak hobetu behar ditugula uste dugu eta horretarako Euskal Herriko elikagaiak ezagutzeko eta kontsumitzen laguntzeko kanpainak abian jartzea guztiz beharrezkoa ikusten dugu, eta hori da gure lehenengoko proposamena. Gu prest gaude pixkanaka-pixkanaka jasangarriak diren produktuak erosten hasteko.

GAZTELUPE - GARAZI GARITONAINDIA: Aditu askoren esanetan produktu kimikoak erabiltzen dituen nekazaritza ez da batere egokia, ez gure osasunerako ez ingurumenerako.

Azokara joan garenean produktu ekologikoen presentzia txikia dela iruditu zaigu. Bestetik, azokan produktu ekologikoen presentzia bultzatu beharko zen.

Gure proposamena da herriko baserritarrei aholkatu ahalik eta produktu kimiko gutxien erabiltzeko eta gero laguntzak eskaini euren produktuak ondo saltzeko. Gure aldetik etxean honi buruz gurasoekin hitz egingo dugu eta produktu ekologikoak kontsumitzearen onurak aipatuko ditugu.

INSTITUTUA - ANE FERNANDEZ: Herritar batzuk etxetik kanpo jatera behartuta daude eta herriko jatetxeetan menu ekologikorik ez dugu aurkitu. Bestetik, eskoletako jantokietan ere ez dago halako menurik.

Udaletxe eta Arrasateko zenbait erakundetan antolatzen diren hitzaldi, formazio saio, eta abarretan, batzuetan, ohitura dago plaka edo oroigarriren bat ematea eskerrak emateko. Gure proposamena da eskerrak emateko ezertarako erabiliko ez dugun plaka edo beste oroigarri bat eman beharrean, gure baserriko sasoiko produktuez osatutako otar bat ematen hastea.

ARRASATE HERRI ESKOLA - MALEN ARANA: Horrela Arrasatetik kanpo gure baserriarren sasoiko produktuak ezagutarazten ditugu. Oso egokia ikusten dugu ere baserriar gazteak ezagutaraztea gure ikasleei, horretarako hitzaldiak ikastetxeetan, kultura etxean,... antolatu beharko dira. Guk gurasoei ekintza hauetan parte hartzeko ere esan eta animatuko ditugu.

GAZTELUONDO - IORITZ ASTABURUAGA: Baserriaren bizimodua galduz gero, produktu naturalak, paisaia naturala eta lanbide horiek galduko ditugu. Geroz eta baserri gutxiago dago. Zergatik?. Bizimodua gogorra da eta etorkizuna oso zaila delako. Hemen proposamen argi bat dugu: herriko azoka indartzen jarraitzea eta bertako produktuak bultzatzea. Baserritarren azoka antolatzen jarraitzeko laguntzak eman.

Gu prest gaude ahal dugun neurrian azokan erosketak egiteko.

ARRASATE HERRI ESKOLA - IBAI NUÑEZ: Erdialdean denda asko itxi dituzte herritarrok ez dugulako bertan erosten, gure erosketak handienak merkataritza zentroetan egiten ditugu eta.

“Denda txikien” eguna urtean behin ospatzea proposatzen dugu, herritarroi bertan erosketak egiteko proposamena egin, %25eko beherapenarekin (udalaren diru-laguntzaz babestuta). Egun horretan zozketak egin daitezke, eta bertako eta baserritarren produktuekin sariak eskaini.

INSTITUTUA - NEREA URIARTE: Aztertu ditugunean ikastetxeko janari makinak, ondorioztatu dugu saltzen diren produktuak legea bete arren ez dituztela betetzen osasun ministerioak ematen dituen gomendioak (razio handiegiak, kaloria gehiegi, lipido gehiegi, eta abar). Horren aurrean bi proposamen ditugu: guk egin dugun kontrola herrian dauden makinetan ere egitea eta bokadiloentzako ontziak ume eta gazteen artean banatzea.

Guk konpromisoa hartzen dugu hamaiketakorako ogitarteko osasungarriak jateko.

Erosketak egiterakoak gero eta plastikozko poltsa gutxiago erabiltzen dira eta hori mesede handia izan da ingurumenarekiko. Gure herrian telazko poltsak banatu ziren eta komenigarria ikusten dugu berriz kanpaina hori martxan jartzea.

Ikasleok poltsa horiek erabiliko ditugu eta baita gurditxoak.

ARIMAZUBI - AINARA SARRIA: Garagartzako ortuak bisitatu ditugu eta ortua edukitzeko gogo sartu zaigu. Eskola batzuetan horretarako lursailik ez dagoenez, herriko berdegune batzuetan ortua izateko aukera ematea eskatzen diogu udal honi. Guk eskola inguruko lorategiak aztertze konpromisoa hartzen dugu eta proposamena egingo genuke (toki batzuetan zuhaitz apaingarriak jarri beharrean fruta arbolak sartu ditzakete).

SANTA TERESA - BEÑAT GAMITO: Bukatzeko, herritar askok auto erabiltzen dute erosketak egiteko. Zenbat eta nagusiagoak izan, herriko autobusa. Gure ustez, trafiko arazo asko sortzen dira herriko busa gutxi erabiltzen dugulako. Gure erosketak askoz ere jasangarriagoak izango dira oinez edo garraioa publikoan eginez gero. Gure proposamena: eguneko erosketaren tiketarekin herriko busaren txartelean deskontua izatea.

Guk gazteak garen neurrian erosketak egiteko oinez joango gara, herrian mugitzeko modu jasangarriena.

ESKERRIK ASKO ZUEN ARRETAGATIK

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Mila esker denoi egin dituzuen proposamenengatik guztiak aztertu eta erantzungo ditugu zalantza barik.

Orain berriz mahaiari gaudenon aldetik ekarpenak egiteko asmoa badago hauxe da momentua.

ARITZ ARRIETA (PSE-EE): Arratsaldeon guztioi eta eskerririk asko berriz ere urtero egiten dan moduan Osoko Bilkura honetara etortzeagatik.

Como he dicho, primero dar las gracias a todos y a todas por haber venido un año mas a este Pleno extraordinario dentro de las actividades propuestas por la Agenda Escolar 21.

El grupo socialista en el Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón, después de haber leído las conclusiones y el dossier que habéis elaborado, no cabe duda que todavía queda mucho trabajo por hacer en favor de la alimentación sostenible y el consumo sostenible y hay que seguir trabajando por ello.

En vuestras conclusiones ya decís que es una cuestión de hábitos fundamentalmente saludables que se han ido perdiendo a lo largo de los años.

Zuen dokumentuetan esaten duzuen moduan gure aitona askoz hobeto elikatzen eta ekoizten zuten, Oinez joaten ziren erosketak egitera, hemengo eta sasoiko produktuak kontsumitzen zituzten ontziratu gabe, hondarrak aprobetxatzen zituzten eta zakarrontzira oso gutxi botatzen zuten.

Gure ustez hau da berriz ere lortu behar dugun helburua baina hau ez da lortuko zuen adinekoek horrelako dinamikak hartzen ez baldin badituzue.

Por eso creemos que vosotros y vuestras generaciones sois los que tenéis que retomar este tipo de conductas de consumo sostenible para que en un futuro esperemos no muy lejano podamos consumir como decís en vuestras conclusiones de forma sostenible por el bien del medio ambiente, del propio sistema de bienestar así como de uno mismo.

Eskerririk asko berriz ere eta jarraitu horrelako proiektuekin danon artean eta elkarrekin lan eginez beti zerbait lortu ahal izango dugulako eta zuen dokumentuan esaten duzuen moduan Arrasateko bizi kalitatea hobetu eta Arrasate hobeagoa bat lortzea izango da helburua.

JUAN CARLOS GARITANO (EAJ-PNV): Arrasateko ikasle eta irakasle guztioi eta bereziki hemen ordezkatzan dituzuenok Arizmendi Ikastola, Arrasate Herri Eskola eta Institutua. Esker mila eta zorionak aurtan lan hau gauzatu duzuenoi elikadura jasangarriari babesa emateko, hala ere, denon ardura izan behar da bakoitzaren osasunarekin zer ikusi handia daukalako.

Ikusten da lan asko egin duzuela eta baita zuen familiei eta herritarrei ere inplikatur zuen ondorioetatik bat azpimarratuko nuke, ahal den eta gertuen sortzen dituzten eliakdurak jan behar ditugula, garraioan energia gutxien gastatuz.

Elikadura klabea da bizitzarako badakizue zenbat pertsona dauden munduan gosez hiltzen norberaren lurrak ez duelako lantzen euren herriko politika planifikaziogatik eta orain dagoen espekulazioa eliakdurak garestituaz zuen partehartzea hemen garrantzitsua da noski eta adostasuna lortzeko ere kapaz zaretela ikusten da.

Guk hartzen dugu konpromisoa zuen eskaerak aurrera ateratzeko, zuek zarete Arrasateko etorkizuna animo eta jarraitu hola.

JOXE ETXEBARRIA (ARALAR): Arratsaldeon guztioi. 6 urtetik 18ra bitarteko 2133 neska mutilek elikadura jasangarria landu duzue ea jaten duguna bai ikasleen artean, bai familian janari jasangarriaren eta hori neurtzeko aztertu dituzue janariaren jatorria, zenbat kilometro egiten dituen, zenbat energia gastatu izan behar den janari hori sortzeko eta bertaratzeko. Ondorioz bertakoa eta sasoikoa ikusi eta jatea dela komenigarriena baita ere ikasi duzue zenbat hondakin sortzen dugun eta hondakin organikoekin konposta egitea zein gauza ederra den ingurumenarentzat eta ondorioz baita ere konpromiso hainbat konpromiso hartzeko xedea agertu duzue.

Etxean honi buruz gurasoekin hitz egitea ahal den dugun neurrian, azokan erosketak egitea, erosketak egitera oinez joatea eta etorkizuneko protagonistak zuek zareten neurrian landu duzuen gaiak asko balio du. Eskerrak beraz bai irakasleoi eta batez ere zuei neska mutiloi.

JOSU PEREDA (BILDU): Eskerrak ematea egin duzuen lanagatik urte honetan gai honen inguruan, eskerrak baita Udalako Ingurugiro Eskolari egitamu hau aurrera eramateagatik eta gaiari helduta eta ikusiaz zein dan ikuspuntua hain zuzen ere ekologikoa izatea, bertakoa, freskoa eta garaikoa ba ikuspuntu horretatik zuen egindako proposamena aztertuko ditugu eta ahal dan neurrian aurrera eramateko ahaleginak egingo ditugu.

Zuen beharra baldin badaukagu edozer gauzetarako jarriko gare zuekin kontaktuan eta eskerrik asko.

MARIA UBARRECHENA (EAJ-PNV): Eskerrik asko denoi egin duzuen lanagatik eta zuen aportazioengatik ze ikusten da denbora asko hartu duzuela gai garrantzitsu hau analizatzerakoan eta gogoz egin dizkizue zuen proposamenak.

Atera dituzuen konklusioak oso esagurantsuak dira eta bai gustatuko litzaiguke aipatzea zuek esaten duzuen bezala gazteok litxarrera ugari jaten dituzuela, honekin ez dugu esan nahi guk ez dugunik gozokirik jaten edo gu hobe elikatzen garenik baina bai egia da azken urteotan somatu dugula jende gazte ugari merkataritza zentroen aurrean bolleria industrialak duelakoa eta latak kontsumitzen lehen jaten zen ogitarteko osasuntsuaren orde.

Zuek zarete etorkizuna eta zuek markatu behar duzue bidea, izan ere hemendik urte batzuetara zuek izango zarete gure lekuetan egonog zaretenok eta hor daukazue erronka handi bat elikaduraren inguruan eta hor dago gakoa, eskarian merkatuak hau da, kontsumitzaileek produktu ekologiko eta bertakoak eskazten badituzte eskaintza automatikoki sortuko da. Eta hor egin behar dugu batez ere indarra eta hor izan behar zarete zuek indartsuak bertako produktuak eta ekologikoak exijitzen hasten zareten momentutik aurrera.

Besterik gabe benetan eskertu egin duzuen lana eta zuek gazteok gai honen inguruan kontzientzia hori edukitzea eta kontzientziazio hori mantentzeak benetan aldaketak bat ekarri dezake gure merkatuetan. Eskerrik asko.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Badira bederatzi urte proiektu honekin hasi zinetela eta Udalak Pleno berezi honen bidez zuen proposamena konpartitzeko aukera duela niretzat berriz hauxe da zuek aurrean ikusteko eta entzuteko aukera dudala. Aitortu behar dut hunkitu egin naizela ikusita halako gaiaren inguruan hainbeste jende inplikatzeko dela elkarlanean.

Gaur areto honetan hainbeste pertsona bildu izana da horren erakusle. Sinez eskerrak eman nahi dizkizuet egin duzuen lanagatik gaiarekiko hartutako konpromezuengatik eta guregana ekarri dituzuen konklusio eta proposamenengatik. Izan ere, gaur aztertu dugun gaiak geroz eta garrantzi handiagoa du gaur danik Arrasaten elikadura jasangarria bermatzen hastea berriz ezinbestekoa da gure osasuna eta ingurumena zaindu eta hobetzeko argi dago honekin guztiarekin lotuta dauden arazo askok gure ohituren aldaketa eskatzen duela eta horretarako denok batera elkarlanean egin behar dugu lana.

Lehen aipatu duzue esaterako herriko azoka indartzeko proposamena helburu horrekin ari gara 200dik gora arrasatear elkartzeko eta ideak konpartitzen eta espero dugu denon artean azoka berri eta bizi batean oinarriak jartzea zuek gaur hemen egin dizkiguzuen ekarpenak ere halaxe jorratutakoak izan dira elkarlanean oso baliagarriak izan daitezke eta nik udal departamentuetara eramango ditut teknikariak eta politikoez aztertu ditzaten.

Ondoren segur nago hainbat neurri hartuko dira Arrasateko udala jasangarritasunaren bidean dago eta ekintzetarako plan berria du baina denok hartu behar dugu konpromisoa gure ohitura txarrak aldatzeko.

Zuek hasita duzue bide hori gaur konpromiso asko hartzeko prest zaudetela erakutsi duzue eta animatzen zaituztet orain arte egindako lanarekin jarraitzeko. Eskerrik asko, zorionak eta segi horrela.

Esp.-kodea: 2012SAPL0005

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 17:35tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2012ko maiatzaren 17an

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

Inazio Azkarragaurizar Larrea